

KOSTUEN EGITURA



Alain Etxeberria
Katerin Artola
Eñaut Amundarain
Igotz Errazkin

Enpresa bat aurrera eramateak kostuak dakartza. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko. Hauexek izan daitezke kostuen egituren ezaugarriak: kostu finkoak, kostu aldakorrak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomia. Hauek guztiak aipatu baino lehen, nabarmendu nahiko genuke gure enpresa balioan oinarritutako enpresa bat dela, hau da, balioarengatik edo ospeagatik iritsi nahi dugula bezeroengana. Beraz, gure kalitateagatik nabarmenduko garenez garrantzi handia edukiko dute lehen mailako balorezko proposamenak, zerbitzuen pertsonalizazio maila altuak eta atal guztietan kostuak murrizteko kezka txikiagoa izango dugu.

Kostu finkoak, ekoiztutako zerbitzu edo produktu kopuruaren arabera aldatzen ez direnak dira. Kostu finkoetan soldatak ditugu, enpresako bazkide guztiek beraien lana egiteagatik edo beraien ekarpenengatik jasotako dirua hain zuzen ere. Horrez gain, gure enpresan interneterako konexioa edukitzeko adsl-a beharrezkoa da eta kostu hori ere finkoa kontsidera genezake, hileroko kopuru berdina ordainduko baitugu behar hori asetzen digun tresnaren truke. Beste enpresa batzuetan lokala ere kostu finkoa izan daiteke, baina gurean, lokala bazkideetako batena denez eta ez ordaintzea adostu genuenez lokala ondo mantentzearen truke, ez dugu kostu finko bezala kontsideratuko, ez baitugu ezertxo ere ordainduko.

Kostu aldakorrak, berriz, ekoiztutako produktu edo zerbitzuen arabera aldatzen direnak dira. Kostuei dagokionez gure enpresan gehien nabarmenduko direnak izango dira. Alde batetik garraioa dugu. Garraioaren prezioa hilabete batetik bestera aldatzen joango da bezeroek *online* egindako eskaeren arabera. Logikoki, *online* bidez geroz eta eskaera gehiago eduki geroz eta handiagoa izango da garraio enpresari ordaindu beharko diogun diru kantitatea. Gainera, garraio enpresari gehiago ordaintzeak gure etekinak handiagoak izatea esan nahiko luke, produktuak *online* bidez erostean ordaintzen baitituzte gastu-bidalketak. Bezeroek zeharka ordainduko lukete garraioari dagokion kostua, hau da, guri ez liguke kosturik suposatuko, baina gu izango ginatke zuzenean garraio enpresari ordainduko geniokeenak. Azken finean, gu bide erdian egongo ginatkeen bitartekariak izango ginatke. Garraioaz gain, gure enpresan erabiltzen dugun energia hilabete batetik bestera aldatzen joango da, baina ez energia bakarrik, gure enpresako telefonoagatik ere hileroko ez dugu berdina ordaindu beharko, hau ere aldatzen joango baita telefonoari ematen diogun kontsumoari erreparatuz.

Gure enpresan eskala ekonomia bi modutan aprobetxatu dezakegu. Lehenik eta behin, erosten ditugun produktuei erreparatuta. Kontuan hartuko dugu enpresa bati gure produktuak eskatzerakoan produktu horiek guztiak eskaera bakar batean egitea eta ez zatika, horrela, bidaia bat soilik ordaindu beharko diogu

enpresa horri eta beraz, kasu honetan ere kostuak ere murriztu egingo dira. Hala ere, produkturen bat falta baldin bada eta oso beharrezkoa ikusten baldin badugu gure enpresan, zatikako eskaerak ere egingo genituzke nahiz eta dena eskaera batean egiten saiatuko ginateke. Horrez gain, saltzen ditugun produktuei erreparatuta, gure salmenta geroz eta handiagoa izan orduan eta etekin gehiago lortuko ditugu eta kostuak ere murriztu egingo dira.

Zabalkunde edo hedadura ekonomikoei dagokionez, baliabide berdinak erabiltzea da produktu bat baino gehiago egiteko. Gure enpresaren kasuan, ez dugu ezer ekoitziko, baina gure enpresak edukiko dituen baliabideak gauza baterako soilik erabili beharrean, baliabide horiek gauza askotarako erabili ditzakegu. Adibidez, garraio enpresa behar-beharrezkoa dugu gure produktuak bezeroen esku jartzeko online bidez eskatzen baldin badute. Kasu horretan, gerta daiteke bi bezero edo gehiagok egindako eskaera entregatzeko helbidea edo lekua oso gertu egotea eta hori gertatuz gero, garraio enpresa horrek hori aprobetxatuko luke eta horrela, bidaia bat egingo luke bi egin beharrean eta horrek gure kostuetan murrizketa ekarriko luke. Horrez gain, gure enpresako ordenagailuari ere erabilera ezberdinak emango dizkiogu. Lehenik eta behin webgunearen mantenuaz arduratzeko erabiliko dugu, baina baita gure kostuen eta etekinen kontabilitaterako, bezeroekin email bidez kontaktatzeko beharrezkoa den kasuetan... Lokala ere bezeroek gure produktuak erosi ahal izateko erabiliko dugu, baina bulegoak ere bertan egongo direnez, ez dugu horretarako bakarrik erabiliko. Gainera, biltegia ere bertan egongo da, beraz, produktuak biltegiratzeko ere beharrezkoa izango dugu.

Ondorioz, kostu aldakorrak izango dira gure enpresan gehien nabarmentzen direnak eta hauetan arreta berezia ipini beharko genuke gure enpresak hilabete batetik bestera aldaketa handiak ez jasateko. Hala ere, aldaketa handi horiek positiboak badira ez genuke arazorik izango, negatiboak izango balira edukiko genituzke arazoak.